


Euskadiko gazteek astegunetan duten astialdiak gora egin du

Gazteen eguneroko aisia familiarekin egotean eta telebista ikustean datza nagusiki. Asteburuko aisia, aldiz, kontsumoarekin eta gaueko aisiarekin erlazionatuta dago.



Euskadiko gazteak 2004 txostenean jasota dauden datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 46k astialdiko lau ordu baino gehiago izaten dute astegunetan. Deigarria dena da 2000ko urteko datuekin alderatuta, Euskadiko gazteek astialdi gehiago dutela.



Fuente: *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004*. Gazteen Euskal Behatokia

Datuak sexuka sailkatuz gero, bai mutilek (% 48) bai neskek (% 44) aisiarako 4 ordu baino gehiago dituzte, baina mutilengan astialdi gehiago izateko joera antzematen da.

Astegunetan izaten den astialdi kopurua ez da bera izaten gazteen adinaren arabera: zenbat eta nagusiago izan, gero eta gozatzeko asti gutxiago. 2004ko datuek aditzera ematen duten bezala, 15 eta 24 urte bitarteko gazteek 3 edo 4 ordu edo are denbora gehiago izaten dute libre. 25 eta 29 urte bitartekoek, ordea, ordu 1 edo 2 izaten dituzte, edo ordubete baino gutxiago.

15 eta 29 urte bitarteko biztanleak astegunetan duten astialdia, batez beste, adin-taldean eta sexuaren arabera. EAE. Portzentajeak. 2004						
	Ordu 1 baino gutxiago	Ordu 1 edo 2	3 edo 4 ordu	4 ordu baino gehiago	Ed/Ee	Guztira %
15-29	3	20	29	46	1	100
15-19	2	20	31	46	1	100
20-24	3	18	30	48	1	100
25-29	5	23	28	43	1	100
Gizonak	3	19	29	48	1	100
Emakumeak	4	21	30	44	2	100

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004*. Gazteen Euskal Behatokia

Euskadiko gazteek aisiarako duten beta ezagutu eta gero, interesgarria da jakitea gozatzeko momentu horiek zertarako erabiltzen dituzten.

Astaldian egunero de ia egunero burutzen dituzten jarduerak honako hauek dira: familiarekin egotea (% 87); telebista ikustea (% 84); musika entzutea (% 78); telefonoz hitz egitea edo sakelako edo posta elektronikoz mezuak bidaltzea (% 75); lagunekin egotea (% 61); eta paseatzea edo kalean egotea (% 61).

Asteburuari dagokionez, aisia tabernetan ibiltzean (% 52), diskoteketara joatean (% 35), lagunekin egotean (% 27) eta kultura ikuskizunetara joatean (% 22) datza. Datuek aditzera ematen dutenagatik, asteburuko aisia gauarekin lotuta dago. Era berean, Gazteen Euskal Behatokiaren *Gazteen joerak 2005* txostenak dienez, Euskadiko gazteen % 61 asteburu gauetz irteten dira asteburu guztietan gutxi gora-behera.

Asteburuetan gauetz irteteko orduei bagagozkio, *Gazteen joerak 2005* txostenaren arabera (Gazteen Euskal Behatokia), gazteen % 40 gutxi gora-behera gaueko hamarrak eta hamaikak artean irteten dira. Etxera heltzeko orduari dagokionez, gazteen erdia baino gehiago goizeko laurak eta zazpiak artean bueltatzen da.

15 eta 29 urte bitarteko biztanleak asteburu gauetz etxetik irteteko eta etxera bueltatzeko ordua EAE. Portzentajeak. 2005			
	Irteteko ordua		Bueltatzeko ordua
20:00ak baino lehenago	17	23:59ak baino lehenago	2
20:00etatik 21:59era	26	00:00etatik 01:59era	7
22:00etatik 22:59era	39	02:00etatik 03:59era	25
23:00etatik 23:59era	15	04:00etatik 06:59era	54
24:00etatik aurrera	2	07:00etatik aurrera	11
Ez da irteten	1	Ez da irteten	1
Guztira	100	Guztira	100

Iturria: *Gazteen joerak 2005*. Gazteen Euskal Behatokia

Euskadiko gazteei gutxien interesatzen zaizkien aisia jarduerak jarduera erlijiosoak (% 96), politiko edo sindikalak (% 94) eta elkarte edo boluntario lanekoak (% 92) dira.

Erlazionatutako datu-taulak:

- [1. taula](#) (pdf, 20 kb)
- [2. taula](#) (pdf, 27 kb)
- [3. taula](#) (pdf, 19 kb)

Erlazionatutako dokumentuak:

- [Euskadiko Gazteak 2000](#) (pdf, 1.729 kb)
- [Euskadiko Gazteak 2004](#) (pdf, 1.592 kb)
- [Gazteen joerak 2005](#) (pdf, 545 kb)

Erlazionatutako estekak:

- [Gazteen Euskal Behatokiko estatistikak](#)
- [Gazteen Euskal Behatokiko ikerketa soziologikoak](#)